

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Alegría-Dulantziko 1 poligonoko 1319 lurzatiaren xehetasun azterketari

2024ko apirilaren 3ko osoko bilkuraren erabaki bidez, behin betiko onetsi zen Dulantziko 1 poligonoko 1319 lurzatiari eragiten dion xehetasun azterketa, eta argitaratu egin da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua eta ekainaren 23ko 2159/1978 Dekretuaren bidez onetsitako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko plangintza erregelamendua 140.6 artikulua ondo-riotarako.

Xedapen orokor bat onesten duen erabaki honen aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.3 artikulua aplikatuz, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Gasteizko EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua arabera. Nolanahi ere, komenigarriago jotzen den beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Alegría-Dulantzi, 2024ko apirilaren 8a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA